

EBAZPENA, 2019ko uztailaren 29koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, Isurketa arloko arduradun lanpostua betetzeko prozesuaren Kalifikazio-epaimahaiaren osaketa berria onartzen dituen.

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2019ko maiatzaren 30eko Ebazpenaren bidez, Uraren Euskal Agentzian zenbait lanpostu behin betiko betetzeko eta lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuari buruzko IRAGARKIA argitaratu zen 2019ko ekainaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA 113. zk.). Argitaratu emandako lanpostu horien artean dago Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoko Isurketa arloko arduradun lanpostua.

Uraren Euskal Agentziako Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoko Isurketa arloko arduradun lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarrien seigarren oinarrian zehaztutakoari jarraituz, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2019ko uztailaren 29ko Ebazpenaren bidez, Kalifikazio-epaimahaiko kideak izendatu zen.

Aztertu da presidentearen ordezkia izendatutako kideak aurkeztutako idatzia, prozesu honetan parte hartzetik abstenitzeko. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezarritakoaren indarrez, Kalifikazio-epaimahaiaren osaketa egokitzea beharrezkoa da.

Horiek guztiak horrela,


ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Uraren Euskal Agentziaren Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoko Isurketa arloko arduraduna hautatzeko prozesuko Kalifikazio-epaimahaiaren osaketa berria onartzea.

	Titular	Suplente
Presidente/a	Asier López Etxebarria (Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia)	Javier Aguirre Orcajo (Agencia Vasca del Agua)
Vocal	Jose M ^a Sanz de Galdeano Equiza (Agencia Vasca del Agua)	Iñaki Arrate Jorrín (Agencia Vasca del Agua)
Secretario/a	María López de Heredia (Agencia Vasca del Agua)	M ^a Teresa Mena Aguilar (Agencia Vasca del Agua)

Bigarrena.- Ebazpen hau Uraren Euskal Agentziaren web-orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) eta Campo y Ochandiano kanpoko aholkularitza-enpresaren web-orrian (www.campo-ochandiano.com) argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko irailaren 4a.



Ernesto Martinez de Cabredo Arrieta

Zuzendari nagusia
Uraren Euskal Agentzia